

661/2025 EBAZPENA, irailaren 17koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiarena, "Eskolan bertsoetan 2025-26" hezkuntza-programarako deialdia onartzen duena. Programa hori Nafarroako B eta D ereduetako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat da, eta 2025-26 ikasturtean egingo da, 2026ko urtarritetik ekainera bitartean.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak txosten bat aurkeztu du, eta deialdi hori onartzeko proposamena egin du. Gehienez ere, bertsolaritzako 100 tailer izango ditu, eta tailer bakoitzak, 15 saio guztira.

Programaren helburua komunikazio-gaitasunak areagotzea da, batez ere ahozko adierazpena, bertsolaritzak berezkoa duen hizkuntzaren erabilera bat-batekoaren bidez. Bertso inprobisatuak norbere buruan konfiantza eta segurtasuna sustatzen ditu ikasleengan, eta komunikazioa hobetu dezaketela eta hitz-jarioa azkartu dezaketela ikusarazten die. Programak bertsoaren ezaugarriak lantzen ditu: teknika, erritmoa, metrika eta errima. Gainera, euskal literaturan bertsolaritzaren ahozko tradizioa jorratzen da.

Programa honetan, ikasle-talde bakoitzari 15 eskola-ordu emanen zaizkio 2026ko urtarritetik ekainera bitartean. Ordu horietako bat bertsoen sormenezko inprobisazioari eskainiko zaio, ikasitako melodiak praktikan jartzeko.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1.- Onartzea "Eskolan bertsotan 2025-26" hezkuntza-programaren deialdia, Nafarroako B eta D ereduetako ikastetxeetan eskolatutako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat. Deialdia 2025-26 ikasturteko 2026ko urtariletik ekainera bitartean egingen da, eta ebazpen honen eranskinean deskribatuta dago.

2.- Ebazpen hau eta bere eranskinak www.educacion.navarra.es (Hezkuntza Berriak) eta www.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3.- Deialdi honen eta berau aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- Ebazpen hau Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hamazazpian.

HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE
HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González